AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

4744

AGINDUA, 2026ko urriaren 26koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidego eta eskaletan sartzeko hautaketa-prozesuetako epaimahaikideak izendatzen dituen 2026ko urriaren 7ko Aginduko huts materiala zuzentzeko dena.

Huts materiala aurkitu da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidego eta eskaletan sartzeko hautaketa-prozesuetako epaimahaikideak izendatzen dituen 2026ko urriaren 7ko Aginduan (2026ko urriaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 196. zk.), eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Huts materiala zuzentzea.

2026ko urriaren 7ko Aginduaren eranskineko 4. apartatuan («Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalan sartzeko hautaketa-prozesuetako epaimahaia»),

hau dio:

«Mónica Silguero Bascones andrea, kalifikazio-epaimahaiko idazkari titularra»,

Baina hau esan behar du:

«Mónica Salguero Bascones andrea, kalifikazio-epaimahaiko idazkari titularra».

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 26a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.